



**EBAZPENA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2019KO EKAINAREN 6KOA, HEZITZAILEEK LANALDI PARTZIALEKO BITARTEKO ORDEZKAPEN KONTRATUARI UKO EGITEA AURKEZTEKO EPEA IREKITZEN DUENA.**

**RESOLUCIÓN DE 6 DE JUNIO DE 2019 DEL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN POR LA QUE SE ABRE EL PLAZO DE PRESENTACIÓN DE RENUNCIA A CONTRATO DE INTERINIDAD POR SUSTITUCIÓN A JORNADA PARCIAL PARA EL PERSONAL EDUCATIVO.**

Hezkuntza Saileko lan-legepeko hezkuntza- eta irakaskuntza-pertsonalarentzako negoziatio-mahaiak 2018ko ekainaren 22an egindako bileran adostu zenez, hezitzaileek, dagokion ikasturterako lanpostuak esleitzeko prozesuan parte hartu ahal izateko, izango du lanaldi partzialeko ordezkapen-kontratuari borondatez uko egiteko aukera, eta bere kasuan, lanaldi osoko kontratua izateko aukera izateko. Prest moduan egon beharko da lanaldi osoko ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrendan.

En la reunión de la Mesa Negociadora del Personal Laboral Educativo y Docente del Departamento de Educación celebrada el 22 de junio de 2018 se acordó que el Personal Educativo podrá renunciar voluntariamente al contrato de sustitución a jornada parcial con el fin de participar en la adjudicación de puestos de trabajo del curso escolar correspondiente y optar, en su caso, a contratos de jornada completa. Para tal fin, será necesario figurar como disponible a jornada completa en la lista de candidatos/as.

Aipatutako akordioaren zioen adierazpenean oso ondo azalduta daude akordio hori oinarritzen duten arrazoiak.

Las razones que sustentan el acuerdo vienen perfectamente relacionadas en la exposición de motivos del mismo.

Hori guztia aintzat hartuta, eta legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuta,

En virtud de todo ello y en ejercicio de las facultades que tengo conferidas,

#### EBAZTEN DUT

#### RESUELVO

**Lehena.-** Hezitzaileek izango dute, 2019ko ekainaren 6tik 13ra bitartean, lanaldi partzialeko bitarteko ordezkapen-kontratuari uko egiteko aukera.

**Primero.-** El personal educativo podrá renunciar a su contrato laboral de interinidad por sustitución a jornada parcial, en el plazo comprendido del 6 al 13 de junio de 2019.

Uko egiteak idatziz egingo dira, interesatuek izenpetuko dituzte, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzendu beharko dira eta tokian-tokiko Hezkuntza Ordezkaritzan aurkeztu beharko dira.

Las renunciaciones se harán por escrito firmado por los interesados/as dirigidas al Director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, y deberán presentarse en la correspondiente Delegación Territorial de Educación.

**Bigarrena.-** Uko egiteek 2019ko abuztuaren 31tik aurrerako ondorioak izango dituzte. Dena den, kontratuak adierazitako data baino lehenago bukatzen badute, aurkeztutako uko egiteak ez du ondoriorik izango.

**Segundo.-** Las renunciaciones tendrán efectos del 31 de agosto de 2019. No obstante, en aquellos casos en los que los contratos finalicen con anterioridad a la fecha señalada, quedará sin efecto la renuncia presentada.

Uko egiteak ez du langabezia-prestazioa kobratzea eragiten, borondatez uko egin baitaia indarrean zegoen kontratu bati.

La renuncia no genera el cobro de prestación de desempleo por tratarse de una renuncia voluntaria a un contrato vigente.

**Hirugarrena.-** 2019ko ekainaren 20an emango da argitara onartutako eta ez onartutako uko egiteen zerrenda.

**Tercero.-** El 20 de junio de 2019 se publicará listado de renunciaciones aceptadas y excluidas.

Vitoria- Gasteizen, 2019ko ekainaren 6an.

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

**JON AGIRRE HUERGA**